

# Auntxa eta Iturbide trikitilariek omenaldia izango dute bihar Azpeitiko kiroldegian

Urrestillako soinu-jolea azalduko da bakarrik, panderojolea gaixo baitago

DV. DONOSTIA

Auntxa eta Iturbide trikitilariak omenaldi egingo zale bihar Azpeitiko kiroldegian, arratsaldeko 5.30etan hasita. Euskal Irrati Telebistak antolatutako jaialdi honetan trikitilariok jardungo dute: Laja eta Mikel; Zabale anaiak, Lourdes Alkorta eta Ulitte; Ansorregi, Allur eta Andoni Larrañaga; Markos Landa eta semea; eta Martin Olabarri eta Imanol. Bertsolari eta dantzari batzuk ere arloko dira jaialdian.

Antonio Aranaga *Auntxa* sointu-jolea eta Migel Arregi *Iturbide* panderojolea 1910ean jaioak dira, Azpeitian. Bata Urrestillan jaio zen, bestea Loiola auzoko Iturbide baserrian. Baliteke Auntxa bakarrik joatea omenaldira, Iturbide oso panggal baitago, eta ezer gutxi ikusten duelarik.

Biharko jaialdian hainbat trikitilariaren jarduna ikusi ahal izango da. Bertsotan, berriz, Joxe Lizaso eta Joxe Agirrek egingo dute. Eta dantzariak ere ez da faltako: batetik, Kizmetz Larrañaga eta Eneritz Epelde (iazko Euskal Herriko txapeladunak) eta Esther Korta eta Aitor Zamalloa (lehen-go erako dantzariak).

Auntxa, 13-14 urte zituela hasi zen soina jotzen. Halaberrez hasi ere. Berak kontatzen duenez, behin batean Azpeitira joan eta eskaparate batean soinu bdk bat ikusi omen zuen, salgai. Eta huraxe gustatu. Zalantza askoren ondoren, dendara sartu eta «zenbat ballo du?» galdetu zion dendarari. Eta dendarari esan zortzi duro kostatzen zela.

Galtzak bete lan eman zion soina eroateak. Etxera joan eta arin baino arinago, isilka, inork emandako sokak gordetzeko zuen itsulapikoa astindu zuen. Behin eta berriz txanponak, pezeta rubiak,

■ *Biak 1910ean jaioak dira eta 14 bat urterekin ikasi zuten jotzen*

hamar zentimokoak kontatu eta... guztira, sei duro bakarrik zeuzkela ohartu zen. Baina, begiak luze, hilabete batzuetan ibili zen etxe eta auzoko enkarguak eginez beste hamar pezeta biltzeko ahaleginak egiten.

## Erromeria eta ezteletan

Trikitixak, porrusaldak, fandango eta arin-arin batzuk ikasi zituen berehala, buruz. Baita fandango berri bat asmatu ere (hainbat aldiz jo izan duen *Auntxaren fandangoa*, alegia). Eta, uste gabe, horrelaxe hasi zen herriz-herri, erromeria eta ezteletako animatzaile. Orduko ezteiak, bi-hiru egun eta gau osoko jaiak izaten ziren; eta oheratu beharko zela pentsatu ere egin gabe, mandioaldeak astintzen zituzten.

Vals, pasodoble, tango eta horrelako lotukoak eta sueltokoak jotzen zituzten. Jendeak eskatzen zuena jo behar izaten zen, gehienetan. Auntxaren garaian ez zegoen gauregun dagoen erraztasu-



Migel Arregi *Iturbide* eta Antonio Aranaga *Auntxa*, orain dela hogei urte baino gehiago.

nik herrian edo herritik kanporanahi ibili eta soina jotzeko. Garai hartako giroa, infermuko hausparri askotzok zion gorrotoa, ilunabarreko orduak eta Almarrikoak errespetatu behar... Hala ere haterik ziren garaiak, haterik pentsatzen du Antonio Aranagak.

## Herriaren omenaldia, ia

1998ko San Juan jaietan, omenaldi xumea egin zioten Antonio

Aranaga *Auntxari* (Boni Garin-ekin batean) urrestildarrek. Izan ere, urte askoan herriko zaindarialetan parte garrantzitsu izan baita bera.

Panderojole bat baino gehiago izan du Auntxak bere joaldietan zehar. Hala ere, gehienetan, Iturbidetarrak izan ditu inguruan: Boni, Migel, Patxi eta Imanol ere bai inoiz edo behin. Azken urteetan Boni Garinekin aritu zen.

Euskal Irrati Telebistaren asmoa zera zen, Iturbidetar guztiak omentzea, eta azkenean Migel aukeratu da, bat behar-eta. Iturbidetarren dinastiaren ordezkari ona dela pentsatu da.

Migel Arregi *Iturbide* hainbat sointu-joleekin jardun du. Lehenbizi osabarekin jo zuen panderoa, 14-15 urte zituela. Serio eta era jarraituan, berriz, 36 urte zituela hasi omen zen.